

2019IOPO0005

112/2020 Dekretua, otsailaren 6koa, ofizialorde lanpostua zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko lehiaketaren onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda onartzen duena eta elkarrizketaren data finkatzen duena

2019ko abenduaren 20ko tokiko gobernu batzarrak, besteak beste, erabaki zuen Udaltzainen ofizialorde lanpostua zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko lehiaketarako oinarriak onartzea, baita hautaketa-prozesuari dagokion deialdia egitea.

Lehiaketarako oinarriak, eta deialdia bera, udaleko web orrian argitaratu da eta 2020ko urtarrilaren 9ko GAOn; eta eskabideak aurkezteko epea urtarrilaren 31n bukatu zen. .

Alkatearen 95/2020 Dekretuz hautaketa-batzordeko kideak izendatu ziren, eta horrek otsailaren 5ean egindako bileran elkarrizketa egiteko data finkatu du.

Aipatutako guztiagatik eta lehiaketa arautzen duten oinarriei jarraikiz,

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Ofizialorde lanpostua zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko lehiaketaren onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda hau onartzea:

Onartua: Aitor Es----nte E--o, xxxxx309X NA zkia. duena.
Baztertua: inor ez

BIGARRENA.- 5 egun naturaleko epea ematea behin-behineko onartuen eta baztertuen zerrendaren kontra alegazioak aurkezteko.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada edo ofiziozko akatsik hautematen ez bada, behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat joko da.

HIRUGARRENA.- Onartutako izangaien elkarrizketarako deia egitea, datorren otsailaren 13rako. Proba hori, 9:00etan, Astigarragako udaleko alkatetzan egingo da.

Astigarragan, 2020ko otsailaren 6an.

Xabier Urdangarin Lasa
alkatea